

## TXARRASKA GAZTE ASANBLADAREN KOMUNIKATUA

Basauri, 2010eko urriaren 25

Jadanik Basauriko Fauste Deuna jaiak pasa dira eta Txarraskoek, bai gaztetxean bai beste kolektiborekin egindako ekintzei balorazio ona ematen diegu. Dena era normalean garatu da, istilu txiki batengatik izan ezik.

14an Gaztetxera heltzean atearen blokeoa suntzituta zegoela konturatu ginen eta barruan hainbat pertsona zeudela. Etorkizuneko museoaren enpresa suspertzailearen teknikariak zirela esan ziguten, eta neurriak hartzeko zeudela han. Baina harrigarria izan zen suntsiketaren arduradunak udaletxeko lan Brigada zela .

Berehala jarri ginen beraiekin kontaktuan eta esan ziguten behar zuten atea botatzeko agindua zutela, museoari lotutako edozein lan egiteko. Geroago joan gara udaletxera azalpen bat eskatzen, eta esaten digute, modu txarrean, ez genuela nahi gakoa eskaintzea, lan hasia zegoela, eta eraikina sartuko zirela nahi duenean.

Gure aldetik zenbait alderdi argitu nahi dugu:

1. Inoiz ez dugu ukatu Udalakoak sartzea Gaztetxera. Aurretik gauza berberarako deitu ziguten eta ez ziren agertu. Horren erakusgarri da duela gutxi alkateak bisitatu zuela Gaztetxea
2. Hasiera-hasieratik jarrera negoziazio bat lortzeko erabaki genuen eta istilu hau oso larria dela uste dugu.
3. Lehengo bileretan museoaren eraikuntza geldirik zegoela esan ziguten badirudi krisia dela eta momentuz oraindik Gaztetxean geratu ahal ginela.

Kontseiluaren ohorea jokoan dago ez bakarrik ezer ez esategatik Gaztetxeri buruz, Herrikoei informazioa eskutatzeagatik ere bai.

Txarraska Gazte Asanblada harro gaude 11 urte autogestioa bultatzeaz eta gazteen kultura alternatiboa eskaintzeaz. Basauriko Gaztetxearen gorakada harrigarria izan da, kalitatea eta kantitatea jardueretan haundituz joan da. Agian, etorkizunean ez gara Gaztetxe honetan jarraituko, baina jarraituko dugu autogestioaren alde borrokatzen.

TXARRASKA GAZTE ASANBLADA